

ZIURTAGIRIA Tokiko Gobernu Batzarraren erabagia

Jurdana Uriarte Lejarragak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2024-12-18(e)(a)n, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK erabagi hau hartu dauela:

5.- BUSTURIALDEKO ENPLEGU PLANEN BARRUKO DIRULAGUNTZAREN DEIALDIA ZABALTZEA ONARTZEA.

Xedea

Tokiko enpresek, Lanbiden enplegu-eskatzaille moduan izena emanda dauden Busturialdeko langabeak kontratatzeagatik diru-laguntzaren deialdia zabaltzea onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeoko Udalak, Busturialdeko udalen izenean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2024ko laguntzen eskaera egin du eta horren ebazpena, Busturialdeko enpresei kontrataziorako diru-laguntzak emateko, jaso du.

Bigarrena: Bermeoko Udalak Busturialdeko enpresei kontrataziorako diru-laguntzak emateko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako ebazpenari jarraituz oinarriak eta eranskinak prestatu ditu.

Hirugarrena: Diru-laguntzaren eskabideak egiteko epea: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 2025eko otsailaren 28ra arte izango da

Laugarrena: Kontu-hartzaileak 2024ko abenduaren 10ean fiskalizazio txostena egin du.

Argudioak

Lehengoa: Busturialdeko langabeak kontratatzeagatik diru-laguntzaren oinarriak Bermeoko udalaren 2024ko azaroaren 28ko Osoko Bilkuran onartu dira.

Bigarrena: Deialdia exekutatzeko aurreikusita dagoen zenbatekoa 238.352,00 € koa da eta udalaren 2024ko aurrekontuaren 01000-24100-4220105 partidaren pentzura izango da.

Hirugarrena: Erabaki hau hartzeko ahalmena alkateari dagokio, baina 2024ko apirilaren 24ko 1886 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, diru-laguntzak emateko deialdiak zabaltzea onartzea Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio.



Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Tokiko enpresek Lanbiden enplegu-eskatzaile moduan izena emanda dauden Busturialdeko langabeak kontratatzeagatik diru-laguntzaren deialdia zabaltzea onartzea.

BIGARRENA: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta diru-laguntzen Datu Base Nazionalak eskatutako informazioa argitaratzea.

HIRUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011ABC00N0G0O5H0B7R7

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 19/12/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 19/12/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 19/12/2024 12:11:41

EXPEDIENTE ::
2024IDA_DEK0829
Data: 30/08/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia



CSV: 07E80011ABC00N0G0O5H0B7R7

BUSTURIALDEKO ENPRESETAN KONTRATAZIOETARAKO LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA, LANBIDE – EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAK ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZEN DEIALDI BARRUKOA

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2024ko martxoaren 20ko ebazpenaren bidez (2024ko apirilaren 2ko EHAA, 64 zenbakia), “2024ko ekitaldirako enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdia” argitaratu zen.

Deialdi honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei laguntzak ematea, enplegua sortzeko proiektuak abian jartzeko, jarduketaren xede den lurraldearen garapen sozioekonomikoan eta modernizazioan eragina izan dezaten, eta enplegu-aukerak modu orekatuan eskaini ahal izan ditzaten Euskadiko eskualde guztietan, 2030eko Enpleguaren Euskal Estrategiarekin eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioarekin bat etorriz.

Deialdi honen azken helburua da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden langabeen enpleagarritasuna hobetzea.

Publizitate-, lehia- eta objektibotasun-printzipioei begira, gardentasun-parametroen arabera sustatzen dira oinarri arautzaile hauek, ahalik eta zabalkunderik handiena izan dezaten Busturialdeko enpresen eta langabeen artean.

1. artikulua.- DEIALDIAREN HELBURUA ETA XEDEA

Tokiko enpresek Lanbiden enplegu-eskatzaille moduan izena emanda dauden eskualdeko langabeak ohiko lan-merkatuan kontratatzeko laguntza ekonomikoak emateko baldintzak arautzea. Hori guztia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2024ko laguntzen deialdiaren barruan (EHAA, 64 zenbakia., 2024ko apirilaren 2koa).

2. artikulua.- ERAKUNDE ONURADUNAK

Onuradunak izan daitezke legez eratutako pertsona fisiko, izaera pribatukoak, ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak Busturialdean **lantokia eta jarduera ekonomikoa** dutenak, baldin eta lanaldi osoko edo lanaldi partzialeko **kontratu mugagabeak** egiten badituzte, baita ikuskizun publikoetako artisten eta teknikarien eta laguntzaileen iraupen mugatuko kontratuen bidez ere; halakoetan, gutxienezko iraupena 3 hilabetekoa izango da.

Kontratuak lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak izan daitezke, gutxienez lanaldiaren %50arekin, eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Kontratazioak izan beharko dira diruz lagunduko diren kontratudun pertsonak lanean hasi aurreko 6 hilabeteetan enpresan dagoen plantillaren batz besteko osoaren gainean **lanpostu garbiak** sortzea.
- Egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekikoak, baita dirulaguntzen arloan indarrean dagoen araudiak ezarritako beste edozein betebeharrak ere.
- Ez duela dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten dion administrazio-zehapenik edo zehapen penalik, eta ez duela horretarako legezko inolako debekurik.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko honako kontratazio hauek:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011ABC000N0G0O5H0B7R7

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 19/12/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 19/12/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 19/12/2024 12:11:41

EXPEDIENTE ::
2024IDA_DEK0829
Data: 30/08/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



CSV: 07E80011ABC000N0G0O5H0B7R7

- Enpresaburuaren ezkontidearenak, ondorengoena ezta enpresaburuarekin, enpresaren kontrola daukatenean, zuzendaritza karguak dituztenean edo enpresa eskatzaileko administrazio organoetako kideekin bigarren mailara arteko (berau barne) odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko harremanik duten gainerako senideenak, ezta administrazio organoetako kideenak ere.
- Enpresa berak aurreko deialdietan dirulaguntza jaso duen pertsonarenak.
- Aldizkako kontratu finkoak
- Kontratua mugagabe bihurtzeak

Laguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak, haren erakunde autonomoek eta Bermeoko Udalak emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzulketa- edo zehapen-prozedura.

3. artikulua.- ESKAERAK AURKEZTEKO LEKUA, MODUA ETA EPEA

Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Administrazioarekin harreman elektronikoak izateko lege-betebeharra dagoenez, aurkezpena egoitza elektronikoan egingo da, horretarako eskuragarri dauden inprimakien bidez. Inprimaki horiek www.bermeo.eus e-helbidean daude eskuragarri.

Dirulaguntza eskatu nahi duenak agiri hauek beteta eta sinatuta aurkeztu beharko ditu:

39/2015 Prozedura Legearena arabera udalak dokumentu horiek aldeztu aurretik baditu ez da izango beharrezkoa aurkeztea, beti ere horiek kontsultatzeko kontrako berariazko adierazpena aurkezten ez badu interesdunak (hau da, idatziz kontrakorik esaten ez badu, horiek udalak berak gehituko ditu espedientean eta ez dauka berriz aurkeztu beharrik. Idatziz kontrakoa esaten badu, aurkeztu egin beharko du berriz)

1. DIRULAGUNTZA ESKATZEKO EREDU NORMALIZATUA: I ERANSKINA BETETA:

1. orrialdea.- Eskaera
2. orrialdea.- Enpresa edo entitateari buruzko informazioa
3. orrialdea.-Diruz lagundu beharreko iraupen mugagabeko kontratuen eskaera
4. orrialdea.- Diruz lagunduko diren ikuskizun publikoetako artisten eta teknikarien eta laguntzaileen iraupen mugatuko kontratuen eskaera.
5. orrialdea.- Hirugarrenen alta agiria
6. orrialdea.- Honako alderdi hauek jasotzen dituen zinpeko aitortpena:
 - Aurtengo diru-laguntzen udal-programan egindako deialdira aurkeztu denez, deialdi horretako oinarriak ezagun dituela eta onartzen dituela.
 - Enpresa onuraduna izateko oinarrietan eskatzen diren betebeharrak betetzen dituela.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, haren erakunde autonomoek eta Bermeoko Udalak emandako izaera bereko laguntzen edo diru- laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzultze edo zigor-prozeduraren eraginpean ez dagoela.

-Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela, eta Bermeoko Udalarekin zorrik ez duela. Bermeoko Udaleko dagokion sailak ofizioz egiaztatuko du.

-Diru- laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen administrazio-zehapenik edo zigor-arloko zehapenik jaso ez izana, ezta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera, sexuarengatiko bereizkeria dela- eta gertatutakoak barne.

-Dirulaguntzen onuradun izateari dagokionez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13 artikulua 2. atalean aurreikusitako gainerako egoeretan ez egotea.

-Jarduera garatzeko udalaren hirigintzako lizentzia guztiak egunean izatea. Bermeoko Udaleko Hirigintza Sailak ofizioz egiaztatuko du. Eskualdeko beste udalerri batzuetako hirigintzako udal lizentzien kasuan, kasuan kasuko udaleko hirigintza arloak egiaztatuko du.

-Ez izatea enpresaburuaren edo enpresaren kontrola duenaren ezkontidea, oinordekoa eta gainerako senidea (bigarren mailara arteko odolkidetasuna edo ezkontza-ahaidetasuna), ezta sozietatearen izaera juridikoa duten enpresetako zuzendaritza-kideak edo administrazio-organoetakoak direnak ere edo sozietate-forma juridikoa duten enpresetako administrazio-organoetako kide izatea, bai eta azken horiekin sortzen dena ere.

-Helburu bererako beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribaturen dirulaguntza, laguntza edo diru-sarrera eskuratu izana. Edo kontzeptu berarengatik eta helburu bererako dirulaguntza eskatuta, ebatzeko zain egotea.

- Bermeoko Udalerri lehenago aurkeztu zaion laguntza honetarako eskatutako dokumentazioa honako hau dela eta eskabide honetan ez dela aurkeztuko adierazten dut.

8. orrialdea.- Kontratazioaren datuak

2. ESKATZAILEARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA:

-Pertsona fisikoa denean:

- NANaren kopia
- Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola egiaztatzen duen ziurtagiria
- Foru Ogasunari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola egiaztatzen duen ziurtagiria
- Ogasunak emandako ziurtagiria, JEZn altan dagoela ziurtatzen duena



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011ABC000N0G005H0B7R7

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 19/12/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 19/12/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 19/12/2024 12:11:41

EXPEDIENTE ::
2024IDA_DEK0829
Data: 30/08/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



CSV: 07E80011ABC000N0G005H0B7R7

-Pertsona juridikoa denean:

- IFKren kopia
- Ordezkatzeko ahalmena duen pertsonaren NANaren kopia
- Enpresaren ordezkaritza-ahalordeen fotokopia
- Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola egiaztatzen duen ziurtagiria
- Foru Ogasunari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola egiaztatzen duen ziurtagiria
- Ogasunak emandako ziurtagiria, JEZn altan dagoela ziurtatzen duena

-Ondasun erkidegoak eta sozietate zibilak direnean:

- IFKren kopia
- Ordezkatzeko ahalmena duen pertsonaren NANaren kopia
- Kontratuen fotokopia eta enpresaren ordezkaritza-ahaltenaren dokumentua
- Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola egiaztatzen duen ziurtagiria
- Foru Ogasunari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola egiaztatzen duen ziurtagiria
- Ogasunak emandako ziurtagiria, JEZn altan dagoela ziurtatzen duena
- Zinpeko aitorpena: dirulaguntza ematen den egunetik 4 urtera arte elkarte ez dela desegingo.

Kontratazioa edo kontratazioak izan beharko dira diruz lagunduko diren kontratudun pertsonak lanean hasi aurreko 6 hilabeteetan enpresan dagoen plantillaren batz besteko osoaren gainean lanpostu garbiak sortzea.

Plantillaren igoera garbia kalkulatzeko, honako hau hartuko da kontuan: dirulaguntza eskatzen den kontratazio-egunean alta emandako langileen batez besteko plantilla, kontratazio egunaren aurreko sei hilabeteetan alta emanda izandako langileen batez besteko plantillarena baino handiagoa izatea. Egoera hori egiaztatzeko, Gizarte Segurantzak egindako “alta emanda dauden langileen batez besteko plantillaren txosten” bi entregatu beharko dira; bata, kontratuaren egunaren aurreko 6 hilabetei dagokiena, eta bestea, dirulaguntza eskatzen den kontratazioaren egun berekoa; horrekin batera, kontratazio-eguneko enpresaren lan-bizitzaren txosten bat ere bai.

Adibidea: 2024ko apirilaren 30ean egindako kontratu baten plantillako igoera garbia egiaztatzeko eman beharreko txostenak honako hauek izango lirateke:

- Altan dauden langileen **batez besteko plantillaren txostena**, 2023ko urriaren 30etik 2024ko apirilaren 29ra arte.
- Altan dauden langileen **batez besteko plantillaren txostena** 2024ko apirilaren 30etik eta 2024ko apirilaren 30eko enpresaren lan- bizitza txostena.

3. KONTRATATUTAKO PERTSONARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaera egiten duen erakundeak eskaera inprimaki bakarra aurkeztu beharko du. Diruz lagundu beharreko kontratu bat baino gehiago aurkeztuko balitz I. eranskineko 3. orrialdea eta/edo 4. orrialdea beteko litzateke aurkezten den kontratu bakoitzeko eta puntuatuko lirateke enpresen arteko dirulaguntzen banaketa handiena lehenetsita .

DOKUMENTAZIO OROKORRA:

- Kontratuaren xedeko pertsonaren **NANaren kopia**
- Lan kontratuaren kopia** eta haren **jakinarazpena** Euskal Enplegu Zerbitzuari.
- Kontratatu den pertsona, kontratua hasteko bezperan langabetua dela eta Lanbiden enplegu eskatzailea dela dioen **inskripzio aldien ziurtagiria**.
- Kontrataturiko pertsonaren kontratazio eguneko **erroldatze ziurtagiria**, edo kontratazio osteko erroldatze agiria, Busturialdeko udalerriren baten noiz erroldatu den adierazten duena.
- Kontrataturiko pertsonaren **Gizarte Segurantzako alta** ziurtagiria edo Gizarte Segurantzak kontratazio-egunean egindako enpresaren lan-bizitzaren txostena.
- Kontrataturiko pertsonaren **lan-bizitzari buruzko txostena**, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana, kontratazioaren osteko datarekin.

KOLEKTIBOKOETAKOA IZATEAGATIK BERARIAZKO DOKUMENTAZIOA:

- Iraupen luzeko langabetuak: inskripzio-aldien txostena, egiaztatzen duena langabeak 540 egunetatik 360 egun langabezian eta enplegu-eskatzaile moduan igaro dituela, kontratatu aurretik.
 - DSBEaren titularrak edo onuradunak: Lanbidek emandako agiria, laguntzaren titularra edo onuraduna dela egiaztatzen duena.
- Hala badagokio, ofizioz egiaztatuko da deialdian ezarritako gainerako betekizun espezifikoak betetzen direla.
- Kontzeptu berarengatik edo helburu bererako dirulaguntzarik eskatu bada beste erakunde publiko edo pribatu batean, Bermeoko Udalaren aurrean aurkezten denak hori beren- beregi zehaztu beharko du, aipatuz zein erakunde edo erakundeei eskatu zaien finantzaketa, eta zenbatekoa den eskatutako, edo, hala badagokio, jasotako diru-kopurua.
- Udalak, kasu zehatz bakoitza kontuan hartuz, eskatzaileari beste edozein dokumentazio osagarri eskatu ahal izango dio, aurkeztutako proiektu osoa ebaluatzeko egokitze jotzen badu.

OSORIK EZ DAUDEN EDO AKASTUN ESKABIDEAK:

Aurkeztutako eskabidea edo erantsitako dokumentazioa osorik ez balego edo konpon daitekeen akatsik balu, eskatzaileari esango zaio 10 laneguneko gehienezko epean konpontzeko, jakinarazpen hori egin eta biharamunetik zenbatzen hasita. Jakinaraziko zaio, halaber, horrela egin ezean eskabidea bertan behera geratuko dela..

EPEA:

Laguntzen eskabideak aurkezteko epea deialdia BAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da.

Eskabideak aurkezteko epea 2025eko otsailaren 28an amaituko da.

Iraupen mugagabeko kontratazioak **2023ko uztailaren 1etik 2024ko ekainaren 30era** bitarte egingo dira. Kontratu bakoitzeko diruz lagundu ahal den aldia urtebetekoa da; kontratu mugagabearen osteko lehen 12 hilabetei dagokiena.

Artisten eta ikuskizun publikoetako teknikari eta laguntzaileen iraupen mugatuko kontratazioak **2023ko uztailaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra** bitarte egin beharko dira. Iraupen mugatuko kontratuagatik diruz lagundu ahal den aldia, gutxienez, 3 hilabetekoa izango da eta, gehienez, 6 hilabeteko kontratua, osteko lehen hilabetei dagokiena.

Enpresak behartuta daude justifikazio agiriak aurkeztera kontratazio epe hauena, **2025ko uztailaren 31 baino lehen**.

Oinarriak eta eranskinak kontsultatu ahal izango dira honako helbide honetan: www.Bermeo.eus/iragarki_taula

Eskaerak epez kanpo aurkezteak bestelako izapiderik egin gabe ezestea eragingo du.

4. artikulua.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK.

Eman beharreko dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa **238.352,00€**-koa izango da eta udal aurrekontuko 2024-01000-24100-4220105 partidaren pentzura izango da.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak 2024ko uztailaren 23an emandako ebazpenean ezarritako aurrekontu-kredituen kargura finantzatuko dira. Ebazpen horren bidez, Bermeoko Udalari **238.352,00** euroko dirulaguntza eman zitzaion, 2024ko ekitaldirako Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen dirulaguntza deialdiaren barruan.

Alde horretatik, aurreko premisak kontuan izanda, laguntza hauek emango zaizkie bi kontratu motei:

1. IRAUPEN MUGAGABEKO KONTRATAZIOA:

A. Lanaldi osoko lan kontratuko 8.000 euroko laguntza. Lanaldi partzialeko kontratazioetarako dirulaguntza lan egindako denborarekiko proportzionala izango da.

Laguntzaren azken zenbatekoak ez dira izango enpresak kontratatutako pertsonen truke ordaindu beharreko soldata-kostuen eta gizarte-segurantzako gastuen (kontratua egiten duen enpresaren gain diren kontzeptu guztiengatikotizazioa barne) % 75 baino handiagoak.

Aipatutako diruz lagundutako zenbateko guztiak % 10 handituko dira, andrazkoak kontratatzen badira. Laguntzaren azken zenbatekoak ez dira izango enpresak kontratatutako pertsonen truke ordaindu beharreko soldata-kostuen eta gizarte-segurantzako gastuen (kontratua egiten duen enpresaren gain diren kontzeptu guztiengatikotizazioa barne) % 100 baino handiagoak.

B. Era berean, dirulaguntzak ematea aurreikusi da laneratzeko **kolektibo** berezi hauetako pertsonak kontratatzeko ; hots:

- DSBEaren titullarrak edo onuradunak.
- 35 urtetik beherako pertsonak.
- Luzaroko langabeak. Iraupen luzeko langabetzat hartzen dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan edo beste enplegu-zerbitzu publiko batzuetan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dauden langabeak, gutxienez 360 egunez kontratazioaren aurreko 540 egunetan.
- 55 urtetik gorako pertsonak.

Horretarako, honako laguntza hauek emango dira:

Lanaldi osoko lan kontratuko 10.000 euroko laguntza. Lanaldi partzialeko kontratazioetarako dirulaguntza lan egindako denborarekiko proportzionala izango da. Kasu honetan, laguntzaren azken zenbatekoak ez dira izango enpresak kontratatutako pertsonen truke ordaindu beharreko soldata-kostuen eta gizarte-segurantzako gastuen (kontratua egiten duen enpresaren gain diren kontzeptu guztiengatikotizazioa barne) % 100 baino handiagoak.

Aipatutako diruz lagundutako zenbateko guztiak % 10 handituko dira, andrazkoak kontratatzen badira. Laguntzaren azken zenbatekoak ez dira izango enpresak kontratatutako pertsonen truke ordaindu beharreko soldata-kostuen eta gizarte-segurantzako gastuen (kontratua egiten duen enpresaren gain diren kontzeptu guztiengatikotizazioa barne) % 100 baino handiagoak.

Busturialdean bizi beharko da bera kontratatzearen dirulaguntza jasoko den pertsona. Diruz lagundutako kontratuak mugagabeak izango dira eta jardun osokoak edo denbora partzialekoak izan ahal izango dira, betiere lanaldiaren %50ekoa gutxienez. Diruz lagundu daitekeen epea mugagabeko kontratua hasten denetik 12 hilabetekoa izango da. Dirulaguntza egindako kontratuaren lehenengo urteari dagokio. Kontratua egingo duen enpresak dirulaguntza jasotzeko gutxienez urtebetez mantendu beharko du lanpostuan kontratatutako pertsona. Ez da diruz lagunduko % 50 baino gutxiagoko lanaldi partzialeko kontraturik. Inola ere ezin izango da diruz lagundu **2025eko ekainaren 30** osteko soldata kosturik.

2. IRAUPEN MUGATUKO KONTRATAZIOA:

A. Ekitaldi publikoetako artista eta langile tekniko eta osagarrientzako iraupen mugatuko eta lanaldi osoko hiru hileko lan-kontratu bakoitzeko, 3.000 euroko laguntza; lanaldi osoko sei hileko edo gehiagoko lan-kontratu bakoitzeko, 6.000 eurokoa. Denbora partzialeko kontratuen edo **hiru eta sei hilabete bitartekoen** kasuan, dirulaguntza lanaldiaren edo lan egindako denboraren proportzionala izango da.

Laguntzaren azken zenbatekoak ez dira izango enpresak kontratatutako pertsonen truke ordaindu beharreko soldata-kostuen eta gizarte-segurantzako gastuen (kontratua egiten duen enpresaren gain diren kontzeptu guztiengatikotizazioa barne) % 75 baino handiagoak.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011ABC000N0G0O5H0B7R7

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 19/12/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 19/12/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 19/12/2024 12:11:41

EXPEDIENTE ::
2024IDA_DEK0829
Data: 30/08/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia



CSV: 07E80011ABC000N0G0O5H0B7R7

Aipatutako diruz lagundutako zenbateko guztiak % 10 handituko dira, andrazkoak kontratatzen badira. Laguntzaren azken zenbatekoak ez dira izango enpresak kontratatutako pertsonen truke ordaindu beharreko soldata-kostuen eta gizarte-segurantzako gastuen (kontratua egiten duen enpresaren gain diren kontzeptu guztiengatiko kotizazioa barne) % 100 baino handiagoak.

B. Era berean, dirulaguntzak ematea aurreikusi da laneratzeko **kolektibo** berezi hauetako pertsonak kontratatzeko ; hots:

- DSBEaren titularrak edo onuradunak.
- 35 urtetik beherako pertsonak.
- Luzaroko langabeak. Iraupen luzeko langabetzat hartzen dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan edo beste enplegu-zerbitzu publiko batzuetan enplegu-eskatzaille gisa izena emanda dauden langabeak, gutxienez 360 egunez kontratazioaren aurreko 540 egunetan.
- 55 urtetik gorako pertsonak.

Horretarako, honako laguntza hauek emango dira:

Laguntzaren zenbatekoa 7.500 eurokoa ekitaldi publikoetako artisten eta langile tekniko eta laguntzaileen lanaldi osoko eta iraupen mugatuko kontratu bakoitzeko, baldin eta sei hilabete edo gehiagokoak badira. Denbora partzialeko kontratuen edo hiru eta sei hilabete bitartekoen kasuan, dirulaguntza lanaldiaren edo lan egindako denboraren proportzionala izango da.

Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, dirulaguntza lan egindako lanaldiaren proportzionala izango da.

Kasu honetan, laguntzaren azken zenbatekoak ez dira izango enpresak kontratatutako pertsonen truke ordaindu beharreko soldata-kostuen eta gizarte-segurantzako gastuen (kontratua egiten duen enpresaren gain diren kontzeptu guztiengatiko kotizazioa barne) % 100 baino handiagoak.

Aipatutako diruz lagundutako zenbateko guztiak % 10 handituko dira, andrazkoak kontratatzen badira. Laguntzaren azken zenbatekoak ez dira izango enpresak kontratatutako pertsonen truke ordaindu beharreko soldata-kostuen eta gizarte-segurantzako gastuen (kontratua egiten duen enpresaren gain diren kontzeptu guztiengatiko kotizazioa barne) % 100 baino handiagoak.

Busturialdean bizi beharko da bera kontratatzearen dirulaguntza jasoko den pertsona.

Diruz lagundutako kontratuak ekitaldi publikoetako artisten eta langile tekniko eta laguntzaileenak baino ez dira izango eta jardun osokoak edo denbora partzialekoak izan ahal izango dira, betiere lanaldiaren %50ekoa gutxienez.

Ez da diruz lagunduko % 50 baino gutxiagoko lanaldi partzialeko kontraturik.

Inola ere ezin izango da diruz lagundu **2025eko ekainaren 30** osteko soldata kosturik.

5. artikulua.- EMAKIDARAKO PROZEDURA

Laguntza hauek emateko prozedura norgehiagokakoa da.

6. artikulua- DIRULAGUNTZA EMATEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK

Aurkeztutako eskabideak alderatzea izango da dirulaguntza emateko prozedura, eskabideak lehentasun-ordenan ipini ahal izateko, artikulua honetan ezarritako irizpide objektiboak kontuan hartuta. Helburu horretarako, eskabideak eskuratutako puntuazioaren arabera ordenatuko dira, puntu gehien duen eskabidetik hasita.

Halaber, lortutako puntuazioaren arabera ordenatutako itxarote-zerrenda sortuko da, oinarri hauetan ezarritako baldintzak bete arren -deialdian finkatutako gehienezko kreditua agortu delako- onetsi ez diren eskabideekin. Hartara, soberakinik badago -dela enpresa onuradunek dirulaguntzei uko egiten dietelako, dela ezarritako baldintzak betetzen ez dituztelako-, organo-emaeleak beste deialdirik egin beharrik gabe erabaki ahal izango du itxarote-zerrendako lehenari eta hurrengoei ematea dirulaguntza, libre geratutako kreditua agortu arte

Aurkeztutako proiektuak faktore hauen arabera baloratuko dira:

- 1. Kontratatzeko lehentasuna duten kolektiboak:
 - Andrazko langabea: puntu 1
 - DSBEaren titularra edo onuradun langabea: 2 puntu
 - 55 urtetik gorako langabea: 2 puntu
 - 35 urtetik beherako pertsonak: 2 puntu
 - Luzaroko langabea: 2 puntu
- 2. Kontratuaren iraupena:
 - Iraupena 3 eta 7 hilabete artekoa: puntu 1
 - Iraupena 7 hilabete edo gehiako: 1,5 puntu
 - Iraupen mugagabea: 2 puntu
- 3. Lan jardun mota:
 - Lan jardun osoko kontratuak: puntu 1

Enpresen arteko berdinketa gertatzen bada, ondorengoek hautsiko dute berdinketa :

- 1. Sarrera hurrenkera laguntza eskaeraren erregistroan. (eskaera erregistratutzat hartuko da dokumentazio guztiarekin erregistroa egiten den datan).
- 2. Enpresa batek kontratu baterako baino gehiagorako eskatzen badu dirulaguntza, hainbat enpresaren artean laguntza ahalik eta zabalen banatzea lehenetsiz lagunduko eta puntuatuko dira.

7. artikulua.- INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA

Bermeoko Udalari (Merkataritza, Turismo eta Ekonomia Sustapenerako Saila – Behargintza) dagokio oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzak kudeatzea. Hautatze eta jarraipen batzorde bat eratuko da horretarako, Bermeo, Mundaka eta Sukarrietako Behargintza eta Gernika-Lumoko Lanbide Ekimenak eskualdeko garapen agentzia bietako langileek osotua. Batzorde honek aztertu eta ebaluatuko ditu aurkeztutako eskabideak.

Hautatze eta jarraipen batzordeak proposamena egin ostean emango edo ezeztatuko dira dirulaguntzak Tokiko Gobernu Batzarraren erabaki bidez. 2024ko apirilaren 24ko 1.886 Dekretuaren arabera, TGBrena da ahalmena.

Interesdunei jakinarazpena egiteko epea hamar (10) egunekoa izango da, ebazpena egiten denetik aurrera.

Epea igarota, ez balego eskabideari legokiokeen berariazko ebazpenik, ukatutzat emango da, aurrerago berariaz ebatz litekeen arren.

Nolanahi ere, deialdi honen bidez araututako dirulaguntzetarako, ezinbestekoa izango da dirulaguntza emateko ebazpenaren unean aurrekontu eta kreditu egokiak eta nahikoak egotea. Aurretiaz Bermeoko Udalaren dirulaguntzak lortu izanak ez die eskatzaileei inolaz ere aldeko eskubiderik ematen, eta ez dira aintzat hartuko modu horretako aurrekariak dirulaguntza berriak emateko.

Diru-laguntza ematen edo ezeztatzen duen Bermeoko Alkatetzaren ebazpenak amaitutzat emango du administrazio bidea, eta horren aurka jakinarazpena hartzen den hurrengo egunetik hasitako hilabeteko epe barruan berraztertze errekurtsua jarri lezake edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua, jakinarazpena hartzen den hurrengo egunetik hasitako 2 hilabeteko epe barruan, Bilboko administrazioarekiko auzi-epaitegian.

Bermeoko Udalak behar den moduan emango du aditzera espedientean jasotako informazioa, aplikatu beharreko araudiarekin bat etorritz.

8. artikulua.- ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Deialdi honetako diru- laguntzen pertsona edo entitate onuradunek honako betebeharrak bete behar dituzte:

- a) Dirulaguntzak ematea arautzen duen Bermeoko udal ordenantzak zehazten dituen arauak behar bezala betetzea, baita dirulaguntza emateko ebazpenak ezar litzakeen baldintza zehatzak ere.
- b) Emandako dirulaguntza onartzea. Emakida jakinarazten den egunetik aurrera, zazpi eguneko epean, pertsona edo entitate onuradunek ez badiote beren- beregi eta idatziz dirulaguntzari uko egiten, onartutzat joko da.
- c) Dirulaguntza eskatu zen helburu zehatzerako erabiltzea.
- e) Hala badagokio, diruz lagundutako kontzeptuaren harira egiten diren sustapen- elementuetan eta kartel, testu edo agirietan (horiek EAEko bi hizkuntza ofizialetan argitaratu beharko dira) Bermeoko Udalaren Ekonomia Sustapen Sailaren babesaren aipamena sartzeari.
- f) Helburu bererako jaso den edozein dirulaguntza jakinaraztea, publikoa ala pribatua, eta, betiere, jasotako zenbatekoa adieraztea.
- g) Bermeoko Udalarekin lankidetzan aritzea, hala eskatuz gero, azterlanak, inkestak edo estatistikak egiteko, bai eta lantaldeetan parte hartzeko ere.
- h) Udalak egin ditzakeen egiaztapen guztiei men egitea.
- i) Deialdi honen 9. artikulua ezartzen duen bezala, emandako zenbatekoa nola erabili denari buruzko justifikazioa egitea.
- j) Jasotako dirua zertan erabili den justifikatzen duten agiri guztiak gordetzea, egiaztatze eta kontrol jardueretarako eska baitaitezke.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea: 07E80011ABC000N0G0O5H0B7R7

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA - 19/12/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 19/12/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 19/12/2024 12:11:41

EXPEDIENTE :: 2024IDA_DEK0829
Data: 30/08/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

CSV: 07E80011ABC000N0G0O5H0B7R7



- k) Kontabilitate liburuak, erregistroak, eginbideak eta bestelako agiriak behar bezala ikuskatuta edukitzea, merkataritza-legeak eta onuradunari aplika dakioken sektoreko legeak exijitzen duten moduan, baita dirulaguntzen oinarri arautzaileek exijitzen dituzten kontularitzako egoerak eta erregistroak ere, egiaztatze- eta kontrol-eskumenak egoki exekutatze aldera.
- l) Jasotako dirua itzultzea (azaroaren 17ko Diru- laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 37. artikuluan zehazten dituen itzulketarako kasuren bat ematen bada).
- m) Bermeoko Udalarekiko zein administrazio publikoarekiko zerga-betebeharrak, baita Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ere, egunean izatea diruz lagundutako prozesuan.

9. artikulua.- DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEA

Diruz lagundutako epea amaituta (2024ko ekainaren 30ean, iraupen mugagabeko kontratuetan, eta 2024ko abenduaren 31an, artisen eta ikuskizun publikoetako teknikari eta laguntzaileen iraupen mugatuko kontratuetan) enpresak behartuta daude kontratazio epe honetako (12 hilabete kontratu mugagabeetan eta 6 hilabete gehienez artisen eta ikuskizun publikoetako teknikari eta laguntzaileen iraupen mugatuko kontratuetan) justifikazio agiriak aurkeztera, **2025eko uztailaren 31 baino lehen**. Egoitza elektronikoan aurkeztu beharko dituzte.

Horretarako aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau da:

- Kontratazioaren datuak: II. ERANSKINA beteta
- Dirulaguntzaren xede den kontratazio-aldiko nominen kopia.
- Diru- laguntzaren xede den kontratazio-aldiko (12 hilabete) nominen bankuko ziurtagiria. Sinatuta eta zigilatuta dauden nominak onartuko dira nominok kobratu izanaren egiaztagiria moduan.
- Dirulaguntzaren xede den kontratazio-aldiko langileen zerrenda nominala eta kotizazioen likidazioen zerrenda.
- Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola egiaztatzen duen ziurtagiria
- Foru Ogasunari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola egiaztatzen duen ziurtagiria

Diruz lagundutako lan-kontratuak diruz lagundutako iraupen-aldia amaitu aurretik edo iraupeneko lehen hamabi hilabeteetan amaitzen badira, emandako dirulaguntza itzuli beharko da, salbu eta azkentze hori gertatzen denean probaldia ez gairiditzeagatik, borondatez uzteagatik, bidezkoztat jotako kaleratzeagatik edo kontratatutako pertsonaren heriotzagatik edo baliaezintasunagatik bada; kasu horretan, dirulaguntzaren zenbatekoa lan-kontratuaren benetako iraupenaren proportzioan murriztuko da.

Kontratua iraungi zaion pertsona deialdi honen barruan kontratatu ahal izateko baldintzak betetzen dituen beste batekin ordeztzen denean, ez da itzulketarik egingo, baldin eta kontratazio-aldien batura, gutxienez, hasierako kontratuarena bada.

Diruz lagundutako langilearen ordezkatzearen jakinarazpenarekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Ordezkatutako pertsonaren baja agiria Gizarte Segurantzari.
- Kontratatu den pertsonari buruzko oinarrien 3. artikuluan aipatzen diren agiriak.

Justifikazio aurkezteko gehieneko epea amaituta, justifikatu gabekotzat joko da, Diru- laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37b artikulua ondukoetarako.

10. artikulua.- BATERAGARRITASUNA

Dirulaguntza hauek honako hauekin ez dira bateragarriak izango: kontzeptu eta helburu beretatik administrazio edo erakunde publiko eta pribatuek emandako beste edozein dirulaguntza edo laguntza lortzearekin, Gizarte Segurantzak emandako hobariak salbu.

11. artikulua.- DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA

Ordainketa bakarra egingo da, 2025ko irailaren 30a baino lehen, dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen denetik.

12. artikulua.- EBAZPENA ALDATZEA

Dirulaguntza emateko aintzat hartu diren irizpideen gaineko edozein aldaketak, betiere dirulaguntzaren xedea bete dela ulertzen bada, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezake.

13. artikulua.- DIRULAGUNTZA ITZULTZEA

1.-Ondorengo kasuetan, bidezkoa izango da jasotako kopuruak itzultzea udalari, dagozkion berandutze interesekin dirulaguntza ordaintzeko egunetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte, honako egoeraren bat geratzen bada:

- a) Emandako zenbatekoa eskatu den xederako ez erabiltzea.
- b) Dirulaguntza jaso izana horretarako beharrezkoak ziren baldintza guztiak bete gabe.
- c) Onuradunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, deialdi honen 8. artikuluan onartutako betebeharrak ez betetzea.
- d) Jardueraren benetako kostuari erreparatuz, gehiegizko finantzaketa; kasu horretan, soberakinaren zenbatekoa itzuli beharko da.
- e) Diru- laguntza emateko ebazpenean onuradunei ezarritako baldintzak edo betebeharrak ez betetzea, jarduera egiteko edo proiektua gauzatzeko moduari dagokionez. Horrelakotan, egindako ez-betetzeen larritasuna hartuko da kontuan itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, ekitate eta proportzionaltasun-printzipioei jarraikiz.

2.- Itzuli beharreko zenbateko osoa edo zati bat zehazteko, proportzionaltasun eta ekitate printzipioak hartuko dira kontuan, eta, horretarako, kasu bakoitzaren nondik norakoak hartuko dira kontuan, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak 17. Artikuluko 3.n) paragrafoan ezarritakoari eta oinarri hauetako 9. Artikuluan jasotakoari jarraiki.


3.- Alkatetzak emango du itzulketa eskatzeko ebazpena.

4.- Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren II. tituluko II. kapituluaren arabera, itzulketa-espeditentea urriaren 1eko 30/12015 Legearen (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena) VI. tituluaren ezarritako prozedura-arauetara egokituko da, eta bertan, entzunaldi-izapidea egingo zaio interesdunari, hamabost (15) egun balioduneko epean.

5.- Dirulaguntza itzultzeko betebeharra egiaztatu ondoren, organo eskudunak ebazpena emango du betebehar hori jakinarazteko. Ebazpen hori arrazoitua izango da, eta berariaz adieraziko da itzultzeko betebeharra eragiten duen arrazoa, itzuli beharreko zenbatekoa eta borondatez ordaintzeko epea. Halaber, ohartaraziko da, aurreikusitako epean itzulketa egiten ez bada, premiamendu-bidera joko dela.

14. artikulua.- KONFIDENTZIALTASUN KLAUSULA

	Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E80011ABC000N0G0O5H0B7R7	Sinadurea eta data JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 19/12/2024 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 19/12/2024 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 19/12/2024 12:11:41	EXPEDIENTE :: 2024IDA_DEK0829 Data: 30/08/2024 Lekua: Bermeon Erregistro unidadea: Erregistro nagusia



Dirulaguntza eskabidea aurkeztean, erakunde eskatzaileak onartu egiten du eta adierazi deialdian ezartzen diren baldintza guztiak betetzen dituela eta bere xehetasun guztiak onartzen dituela.

Era berean, azaltzen du, eskabidean azaltzen diren datu pertsonalak bere onetsiarekin biltzen direla eta hori onartzen duela. Datu hauek automatizatu egingo dira eta udal honek behar den moduan baimendutako fitxategietan sartuko direla eta fitxategi horiek udal kudeaketarako baino ez direla erabiliko baimentzen duela. Beste herri administrazio batzuei edo beraien erakundeei helarazi edo komunikatu ahal izango dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoan, eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoan, aurreikusitako kasuetan.

15. artikulua.- EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA

Deialdia arautzen duten oinarri horiek eta diru-laguntza emateko erabakia Diru-laguntzen Oinarri Nazionalean argitaratu beharko dira, sektore publikoa arrazionalizatzeari eta administrazioa erreformatzeko beste neurri batzuei buruzko irailaren 16ko15/2014 Legeak aldatu zuen Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 20. artikuluekin bat etorriz

AZKEN XEDAPENA

Diru- laguntzen deialdi honek aurreikusten ez dituenetarako, honako lege eta araudiak aplikatuko dira: azaroaren 17ko Diru- laguntzen 38/2003 Lege Orokorra; azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; eta Bermeoko Udalak ematen dituen Diru- laguntzen Oinarri Arautzaileak onartzen dituen Ordenantza Orokorra.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespenaren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikuluaaren arabera), Nadia Nemeh Shomaly alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

Orri-oinean sinatzailea eta data

	Sinadurea eta data		EXPEDIENTE :: 2024IDA_DEK0829 Data: 30/08/2024 Lekua: Bermeon Erregistro unidadea: Erregistro nagusia
	Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E80011ABC000N0G0O5H0B7R7	JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 19/12/2024 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 19/12/2024 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 19/12/2024 12:11:41	

